

2023ko urrian, UEUK lehen mintegi bat antolatu zuen euskara batuaren erabilera eta zuzentasunari buruzko diagnostikoa bat egiteko. Bertan, **erabilera eta zuzentasunaren maila eskasa aipatu zen eta formakuntza jarraikia eta alfabetatze maila hobetzeko beharra** identifikatu zen, bertzeak beste.

Horren segidan antolatu dugu 2024ko azaroaren 13ko jardunaldia, eta iazko mintegian jorraturiko diagnostikoa eta aterabiderako proposamenak Ipar Euskal Herrian euskaraz diharduten eta **euskararekin interesa duen ororekin partekatzea** izan da jardunaldi horren helburua, erran nahi baita, **zuzentasunaren gaia sozializatzea**.

Hala, saio horretan, haurren eta helduen irakaskuntza, unibertsitate, hedabide, ikerkuntza, itzulpengintza, euskalgintza eta administrazio publikoaren ordezkariak zabalago batekin egin nahi izan dugu gogoeta, gaia denei **zabaltzeko eta aterabiderako proposamen berriak** atzemateko. Aldi berean, eragile bakoitzak bere jardueran egunerokotasunean euskararen zuzentasuna segurtatzeko dituen indar edo mugak/ahuleziak aipatu ditu.

Euskaltzaindiak, euskara batuaren nondik norakoak oroitarazi ditu eta hizkera estandar formalaren garrantzia goraiatu du. Bestalde, aspalditik eskuragarri diren eta sortu berri dituen tresnak ere izan ditu aipagai.

Jardunaldia bukatzeko, etengabe eta egunero euskararen zuzentasun maila hobetzeko eta bide horretatik aitzin pausuak emateko gogoz, antolatzaileek parte hartzaile guziak edota jardunaldiko gaiak jabetu den oro animatu zituzten **gogoeta hau beren jardun leku eta egituretara eramatera**. Agian, bigarren memento batez, jardunaldi berri baten bidez, **elkarrekin aztertzen ahalko genituzke egitura bakoitzean eginiko lanak eta aplikaturiko bideak, euskara batuaren zuzentasuna areagotzeko bidean**.

Maitena Carment eta Paulo Arzelus
Antolatzaileak